



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IN-3. JARDUEREN TITULARTASUN ALDAKETA

Zer da / Zertarako da

Komunikazioa behar duen jarduera batean (IN-1. Izapidean sartutakoak), naiz lizentzia behar duen jarduera sailkatu batean (IN-2. izapidean sartutakoak) titulartasuna aldatzeko jakinarazpena, administrazioaren ikuskaritza eta kontrola baimentzeko eta lehen titular modura ziharduenari ardura kentzeko.

Baldintzak:

1.- Eskualdaketa honekin, indarrean dagoen jardueran ezingo da inolako aldaketa edo zabalkuntzarik egin.

2.- Lizentzia 171/1985 Dekretua¹ indarrean jarri baino lehenago lortu bazen (ikus lehen xedapen iragankorra), titular berriak, jarduera erregularizatzeko, teknikari eskudunak idatzitako proiektua aurkeztu beharko du. Proiektu horretan egiaztatu beharko da jarduera goian aipatutako dekretuak ezartzen dituen arau teknikoetara egokitzen dela.

Proiektua aurkezteko epea sei hilabetekoa da, eskualdaketa egunetik aurrera.

Proiektua aurkezteko betebeharra bete ezean, Udalak beharrezko neurri zuzentzaileak hartzeko aginduko du eta, egoki joz gero, kautelazko neurriak ere ezarriko ditu.

¹1985eko ekainaren 11ko 171/1985 Dekretua, etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren Ekintzabide Nekagarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuekin erabili beharreko Teknikazko Arauak ontzat ematen dituena (1985/06/29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

Nork eska dezake

Jardueraren titularrak edo haren legezko ordezkariak.

Aurkeztu beharreko agiriak

A. Titulartasun aldaketaren komunikazio orria [Ikus TA inprimakia](#)

Komunikazio orria alde biek (oraingo titularrak eta titular berriak) izenpetu beharko dute. Eskualdaketa alde biko ez bada eta, irekitze edo jarduera baimenaren titularrak sinatzen ez badu, baimenaren trantsizioaren zilegatasuna ziurtatzen den dokumentua aurkeztu be harko da (herentziaren banaketa, lokalaren salerosketaren eskritura, negozio lokalaren alokairu kontratua...).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- H. Titular berriaren Jardueraren Ekonomikoaren gaineko Zergan (JEZ) altaren kopia
- I. Suteen aurkako babes sistemak mantentzeko kontratuaren kopia.
- J. Instalatzeko eta funtzionatzeko osasun baimena, hala badagokio.

Non aurkeztu behar da

Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean (San Bartolome 2, 20400 Ibarra), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi izanez gero, ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Hitz ordua ordutegi zabalagoan emateko aukera ematen da. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna.

Hitz ordua eskatzeko: 943671138 edo ingurugiroa@ibarra.eus

Zenbat kostatzen da

Ikus ordenantza fiskalak, 57 eta 59. orrialdeak

Prozeduraren epea

Eskualdaketa honek ondorio automatikoa izango du, beti ere indarrean dagoen araudiaren arabera bada.